

AMES BAT.

Amesetan beiñ aurkitu nintzan pozik basuan,
 Larratuagaz artaldecho bat ene inguruau,
 Usterik anche bizi nintzala libertadearan,
 Pentsaurik dontsu utsik nintzala mundu danean,
 Kanpo guztiak nekusan oso orriz jantziak,
 Urak arraiñez, larrak aberez, choriz abiak,
 Eguzkia lo, Illargia ta izarrak garrez,
 Ta ichasoak jo! zirudian zelai bat gabez.

Pago arbola bateko kopan zan aurkietan
 Arrano guztiz bildurgarri bat, arro benetan,
 Joben oñetan begoan legez erpe biakaz,
 Chimista edo onaztarri bat artuta eurakaz,
 Zeñek ziñoa: «Gnun da nilako beste bat bada,
 »Egazti danak erregiñatzat auturik ala?
 »Lurrera jatsi baldin nai badot beingo batean
 »Zeartu oi dot goi ustegia beingo batean,
 »Nire egoen burrundareak aberetzarrak
 »Ipinten ditu ikaraturik bildurrez danak,
 »Eta nai badot gora ta gora zeruan igo
 »Eguzkiagan begiak dodaz josi egingo.
 »Bardin gizona larritzen daben oidei illuna,
 »Oinpean dakust darakustala umilitasuna.»

Arbola aren azpian bere ipurtargia,
 Aurkietan zan arro, naiz izan ziztrin chickia,
 Bardintze arren arranoagaz arek doaiak,
 Alabetan dauz modu onetan bere emokaiak.
 »Zeruak emon eustazan landa gozagarriak,

»Loretan dodaz gura lakoše bizitokiak,
»Aise bigunak deustez erara ondo zabaltzen,
»Ta eguzkiak tintaz edertu, intzak galantzen,
»Bedar arteetan abere legez naz larratuten,
»Egoak bere egazti gisan nik astinduten,
»Baita gabetan dabillanari deutsat serbitzen,
»Izarrauk baño obeto askotan argi egiten.»

Bitarte atan bazijoiezan euren bidean,
Argikariak oi daben legez izar errian,
Lotan legeche, lurra egoan iſill iſillik,
Ichas urdiña erriberetan geldi geldirik,
Baña aiſeak puz bat eginda ikaratuia,
Asten da egan iges egiñaz arrano arrua,
Eta orricho batek jausirik ipurtargia,
Autspean sartu eban bertatik dana guztia;
Nun esnatuta ni bere nintzan bertatik jarri,
Eta ames bat zala guztia neutsan igarri.

¡O! zenbat aldiz egin oi doguz guk bai, amesak,
Zelaiak uste billatu, eta aurkitu lezak;
Eta andia uste dabena sarritan dala,
Ikusi oi da ipurtargia ein zan erara.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.
